

MOZIO ARRUNTA

LOIOLAKO ERRIBERETAKO ALDAGELTOKIA DELA-ETA

Amaia Almirallek, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Loiolako Erriberetako aldageltokia dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko urteetan, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Trenbide Sareak-en bitartez, inbertsio ugari egiten dihardu Donostiako trenbide-sarea handitu eta hobetzeko. Baina azpiegitura estrategikoa den arren, oraindik ez da Euskotren eta Renfe, bi tren sistemak, sare berean modernizatu eta eguneratuko lituzkeen eta lurralde osoan bidaiarien tren garraioa egituratzea ahalbidetuko lukeen Loiolako Erriberetako Aldageltokia eraikitzeko pausorik eman.

Nahiz eta udal honek hainbatetan, erakunde adierazpenen bitartez, kontsentsuz eta aho-batez eskatu eta premiazkotzat jo, nahiz eta 2010eko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasoia egon, eta 2008-2024rako Donostiako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planak, gainera, trenbide sare hau hiri barneko zein herri arteko mugikortasunerako gakotzat hartu.

Izan ere, soilik Donostiakoak diren 16 tren-geltoki lotuko lituzke aldageltokiak benetako tren-sare urbano bat egituratuz: Herrera, Gros, Intxaurren, Egia, Erdialdea, Loiola, Txomin, Martutene, Amara, Amara Berri, Ibaeta, Añorga eta urte amaieran zerbitzuan sartuko den Alzako auzoak zuzenean tren-sarearen bidez lotuko bailirateke. Bestetik, lurraldeari dagokionez, geltoki intermodal honen bitartez, Gipuzkoan diharduten aldiriko lineak konbinatzea ahalbidetuko genuke, gipuzkoarren %80 sare berean lotuz.

Eskumenak dituzten erakunde publikoek, benetan, mugikortasun iraunkorraren alde lan egin nahi badute, donostiarren eta gipuzkoarren Garraio Publiko Bidezko Irisgarritasuna (GPBI) hobetu nahi badute eta ibilgailu pribatuari protagonismoa kendu nahi badiote, hirigune osasuntsuago bat sustatuz, premiazkoa da azpiegitura estrategiko hau martxan jartzeko pausuak lehenbailehen ematea.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die, beste behin ere, Eusko Trenbide Sare (ETS) eta Eusko Jaurlaritzari batetik, eta ADIF eta Espainiar Gobernuari bestetik, hitzartu, onartu eta sina dezatela lankidetzaz hitzarmen bat aurten, Donostiako trenbide-sareko 16 geltokiak lotuko dituen Loiolako Erriberetako Aldageltokiaren proiektua elkarrekin idazteko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die, beste behin ere, Eusko Trenbide Sare (ETS) eta Eusko Jaurlaritzari batetik, eta ADIF eta Espainiar Gobernuari bestetik, Aldageltokia eraikitzeko dagokion konpromiso finantzarioa adostu eta har dezatela hurrengo aurrekontuetan.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Trenbide Sare (ETS) eta Eusko Jaurlaritzari, Espainiar Gobernuak lehentasunik eman nahi ezean, aurreratu dezala Aldageltokia eraikitzeko finantzazioa eta deskontatu dezala ondoren urteroko Kupotik.

Donostian, 2016ko uztailaren 6an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea